AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1924

AGINDUA, 2013ko apirilaren 8koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Isabel Lansac Aquilue andreak Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola xadatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoaren arabera eta lege honek egozten dizkidan aginpideez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Isabel Lansac Aquilue andreak Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzan goi-kargudunaren idazkari izateari utz diezaiola (Lanpostuaren kodea: 520010; dotazioa: 163). Eskerrak ematen zaizkio betetako zerbitzuengatik.

Bigarrena.– 2013ko apirilaren 8tik izango ditu ondorio administratiboak kargutik kentze honek.

Hirugarrena.– Agindu honek administrazio bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, agindua eman duen organoari zuzenduta; edo, bestela, administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 8a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.